

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Ondarroako Udala****Bake epaile titularra eta ordezkoa**

Ikusita Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak bidalitako idazkia, Ondarroako bake-epailearen kargua hutsik dagoela jakinarazten duena. Hori dela eta, espedientea ireki da bake-epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101. artikuluan eta hurrengoetan eta Bake-epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. Baita dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea ere.

Lanpostuaren betekizunak

- Espainiarra eta adin nagusikoa izatea.
- Botere Judizialaren Lege Organikoko 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialerako ezgaitasun- edo bateraezintasun-kausaren batean ez egotea.
- Alderdi politiko edo sindikatuetoako kide ez izatea edo haien zerbitzura enplegua izatea (ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 23. artikulua).

Aurkezteko modua eta epeak

Horretarako, instantzia orokorra aurkeztu ahal izango dute Ondarroako Udaleko (HAZ) Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Kanttoipe, 3, 48700-Ondarroa), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan araututako prozeduraren bidez, 20 laneguneko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Eskabidearekin batera:

- NANaren fotokopia.
- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialerako ezgaitasun- edo bateraezintasun-kausaren batean ez dagoela adierazten duen aitorpena.

Ondarroan, 2023ko maiatzak 2. — Alkatea, Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga